

HOMILIA DEL OBISPO EN EL FUNERAL DE IGNACIO URIA

INAZIO URIAREN HILETA-ELIZKIZUNA

HOMILIA

Azpeitia, 2008-12-05

Meza emaile bihotzekook,

Inazioaren etxeko, herriko, langile, adiskide maiteok,

Herriaren ordezkari agurgarriok:

Samindurik, sumindurik, hunkiturik gaude. Senar maite bat, guraso on bat, enpresari fin bat, herrizale bikain bat, kristau zintzo bat garbitu dute, ehiztariak aberea botatzen duen antzera. Gizon bat hil dute, Jainkoaren seme bat! Negargarria eta lotsagarria! Zergatik? Zertarako? Noren izenean?

Gizon honen emaztea eta seme-alabak akiturik utzi dituzte, puskatuta. Nork du hain zuzengabea den halako oinazea eta nekea ekartzeko eskubiderik?

Euskal Herriko enpresariak eta beraien langileak beldurpean kateatu nahi dituzte. Hau al da gizartea jasotzeko bidea? Zer lortzen dute: herria eraikitzea ala suntsitzea?

Herriaren ordezkariak eta erakundeek legez hartutako erabaki bat, indarkeria bide dela, ezereztu egin nahi dute. Hau al da gehiengoaren ebazpena errespetatzea? Ezadostasuna zilegi da; indarkeria, inola ere ez.

Gizartearen itxaropenari sastada ikaragarri bat sartu diote. Itxaropena da herriaren arnasa. Zer egin dezakegu arnasarik gabe? Askatzaile izenaz, ETAk morrontza dakarkigu. Salbatzaile ez baino hondatzaile dugu.

Un hombre ha sido abatido como una pieza da caza.

Un hijo de Dios ha sido tiroteado como un criminal.

Una familia ha sido sumida en un mar de dolor.

Un empresario que brinda trabajo ha sido eliminado violentamente.

Un proyecto avalado democráticamente quiere ser neutralizado por la fuerza y la sangre derramada.

Una sociedad enfrentada a graves problemas ha sido de nuevo herida en su esperanza.

¿Es éste el camino para la liberación que ETA promete? ¿Qué liberación?

Galdera eta gogoeta hauekin estuturik, Jainkoaren Hitzarengana jotzen dugu argi bila, kontsolamendu bila, adore bila. Isaiasek estu eta larri dagoen herriari etorkizun hobe bat eskaintzen dio otordu oparo baten irudipean, negar gabeko eta heriotza gabeko bizitzaren irudipean. Israelgo herriak entzundako hitz berberak esaten dizkigu gaur Jainkoak: Inazioaren etxeko nahigabetuei, Azpeitiko sinestedunei, enpresariei, langileei, herriari eta bere arduradunei. Gure Jainkoak ez gaitu bertan behera utziko. Azkenean, bere magalean hartuko gaitu, bere Seme Gurutziltzatua onartu zuen bezala. Eta bidean gure alboan izango dugu zuzentasun bila gabiltzanok, bake bila, adiskidetasun bila, etorkizun hobe baten bila gabiltzanok.

Dios nos habla hoy y aquí por las palabras de Isaías. Él es fiel. Cumplirá su promesa. Nos dará la vida en plenitud junto a Él. Entretanto estará junto a nosotros, padeciendo y gozando, en todos nuestros afanes por vivir honestamente, solidariamente, en paz y en armonía y en todos nuestros esfuerzos por luchar con un corazón noble y limpio contra todo aquello que se oponga al predominio de estos valores.

Jesusek gaur Ebanjelioan gauza harrigarriak esan dizkigu: zorionekoak ez bortitzak, otzanak baizik; ez bihozgogorak, errukitsuak baizik; ez guda zaleak, bakegileak baizik; ez erasotzaileak, erasotuak baizik. Otzana, errukitsua, bakegilea, erasotua izan zen Jesus berberaren hitzak ditugu hauek. Jauna,

nahiz eta kostatu, begietan negar-malkoak eta bihotzean amorrua nabari arren, sinistu nahi ditugu zure hitzak. Agian gaur ez ditugu guztiz ulertuko ez irentsiko. Sinesten dugu gorrotoa, mendekugrina eta indarkeria maitasunaren indarraz garaitu zenituela zuk. Las bienaventuranzen recién proclamadas suenan a muchos como propias de un soñador utópico. Los mismos creyentes tenemos dificultades para entenderlas y asumirlas, sobre todo en circunstancias como ésta. Pueden parecer desmovilizadoras y ser entendidas como una invitación a la resignación pasiva. No se oponen a la justicia, a la lucha tenaz contra la violencia sangrienta que siembra terror; antes bien, la suponen. Pero nos avisan que para desarraigala no basta la pura justicia; es necesario el amor a las personas, al pueblo. Sólo una justicia impregnada por el amor a todos es para Jesús y para su comunidad garantía del respeto de todos los derechos humanos de todos.

Ezinbestekoa, hemen garen guztiok mezu berezi bat jasotzea homilia honetan. Lehenbizi, Azpeitia eta Euskal Herri osoak. Gure arriskua etsipena da. Etsipenak indargetu egiten gaitu. Gizarte bezala beharrezko ditugu indar guztiak. Beste herri batzuk egoera latzagoetatik atera dira etsipenak geldotu ez dituelako. Ez gaude errotape honetan giltzapeturik. Tenemos motivos de sobra para sufrir y preocuparnos. Pero no los tenemos para perder la esperanza activa.

Gipuzkoako kristauok gure gizarteari eman geniezaiokeen zerbitzurik handienetarikoa, itxaropen iraunkorra da. Gure fedeak diosku Kristo hil eta berpiztu delako, ongia gaizkia baino nagusiagoa dela. Bere Hitzak eta gure otoitzak janaritu beza gure itxaropena. Insultar a nuestro pueblo la reserva inagotable de la esperanza garantizada por la Muerte y Resurrección del Señor es para los creyentes una misión inaplazable.

Enpresariak zarete, urteetan zehar, ETaren indarkeriaren jomuga berezietako bat. Konturatzen gara zama makurra daramazuela zuen gainean. Jabetzen gara zama honek zuen barnea, familia, ondasunak kargatzen dituela. Zuek eta zuen lantegietako langileok jakin ezazue behar-beharrezko zaituztela gizarte honek, batez ere sasoi gordin honetan. Ondo merezia duzue gure babesa. No os han tocado, estimados empresarios, los golpes más tolerables por parte de este azote de la violencia. Sintonizamos con la pesadilla que muchos sufrís en vuestra carne y en la de vuestra familia. Tenéis todo el derecho y la necesidad de contar en estos momentos con el apoyo neto de la sociedad y con la defensa eficaz de vuestra vida y vuestros bienes. Los trabajadores de las empresas amenazadas tenéis igual derecho a que se garantice al mismo tiempo vuestra seguridad y vuestro trabajo.

Herriaren ordezkari zaretenok enpresari eta langileen segurtasuna bermatzen ahalegin sendoak jarriko dituzuela seguru nago. Herri honetara bakea ekarri nahi duzue guztiok. Hau da, izan ere, zuen helburu nagusienetarikoa. Jar ezazue helburu hau ez bakarrik alderdikeren gainetik, baizik baita ere zuen legezko desberdintasun batzuen gainetik ere. Elizak berriz errepikatzen dizue: egin dezagun guztiontzako bakea guztion artean. Sabed aparcar en el presente aquellas diferencias que impiden la paz posible. Perteneceemos todos a este pueblo. Cabemos todos en este pueblo, salvo aquellos que se autoexcluyan por su palabra o su conducta. En esta casa solariega de nuestro pueblo, la Iglesia os repite con persistente convicción: hagamos la paz entre todos y para todos.

Inazio Uriaren emazte, seme-alaba eta etxeakoentzako dira orain nire hitzak. Izugarria da hartu duzuen zartada. Beltza da zuen iluntasuna. Gizartearen elkartasuna eta laguntza ez da nahiko zuen samina baretzeko. Geroxeago jalgiko da zugan, Manoli, eta zureengan, Inaziok eta zerorrek elkarrekin sutsu bizi izan duzuen sinesmena. Berak lagun egingo dizue zuri eta etxekoei. Ez du oinazea uxatuko, baina oinaze hori eramateko emango dizu adorea eta gantzua. Jainkoaren albotik berak lagunduko zaitu.

Dos sentimientos me embargan al terminar esta homilía: ¿vale para algo la palabra en estos momentos? ¿qué puedo hacer yo, qué desea Jesús de mí, en la actual situación? Vale la palabra. Es necesaria la palabra. El ser humano ha ido pasando a lo largo de su trayectoria de la violencia al grito y del grito a la palabra. Vale especialmente la Palabra que hace lo que dice: la Palabra de Dios. No me cansaré de repetirla y de esperar en silencio orante la acción de Dios, encarnada en iniciativas y acciones humanas. Hitza ez da hutsala, ez. Gizakia, bere ibilbidean, indarkeriatik deiadarrera igaro da, eta deiadarretik hitzera. Hitzak giharra du, bereziki eman eta betetzen den

Hitzak: Jainkoaren Hitzak. Etsi gabe hots egingo dut eta otoitz isilean itxarongo Jainkoaren egintza, giza ekintzetan gorpuztua.

¿Qué puedo hacer? Proseguir y colaborar sin desesperar en toda iniciativa que conduzca verdaderamente a la paz posible. Entregar a esta misión mis horas, mis esfuerzos y mi vida entera. Bakeak beti dakar gurutzea eta merezi du bizia ematea.

+ Joan Maria Uriarte,

Donostiako Gotzaina